

## IZENBURUA

Txirrinaren misterioa

## EGILEA

Begoña Oro

## GAIAK

Misterioa. Adiskidetasuna.  
Gatazka-konponketa

## GAITASUNAK

Ekimena eta espiritu  
ekintzailea.  
Ikasten ikastea

ORRIALDE KOPURUA: 56



### ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Misteriozko kontakizun hau entretenigarria eta, aldi berean, hezigarria delako. Izan ere, gure ekin-tzen ardura hartzearen garrantziaz ari da, bai eta huts egiten dugunean barkamena eskatzen jakiteaz ere.

### ARGUMENTUAREN LABURPENA

Katagorriaren lagun-en eskolan, eskolak noiz hasten eta noiz bukatzen diren iragartzen duen txirrina zoratu egin da, eta beti josten du garaia baino lehen. Irakasleak, Elisa eta katagorriaren lagun-taldeko kideak txirrina nork josten duen jakiten saiatzen dira. Dena kaosa da: elkarren arteko salaketak, zigor bidegabeak... harik eta Rasi zela erruduna ohartzen diren arte; bere lagun-en falta sentitzen zenez, haiek lehenbailehen irtetea nahi zuen.

### NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Era guztietako irakurleentzat, istorioa xumea eta entretenigarria baita. Misterioen zaleei gustatuko zaie, batik bat, bai eta lagun-taldeei buruzko istorioak atsegin dituztenei ere.

# Ni ez naiz izan!

## JARDUERA-PROPOSAMENA



### BAKARKA

Katagorriaren lagun-taldeko kideak ikertzen hasi dira nork josten duen eskolako txirrina. Eskatu ikasleei zerrenda batean idazteko kontakizuneko protagonistei bururatzen zaizkien susmagarriak, bai eta susmo horien arrazoiak ere.



### BIKOTEAK

Kontakizunean, Aitor eta Irene eztabaidan aritu dira behin baino gehiagotan. Jarri ikasleak binaka eta eskatu gogorra ekartzeko azkeneko aldian noiz aritu diren eztabaidan, zergatik eta nola konpondu zuten. Gero, denen artean, proposatu gatazka txikiak konpontzeko neurri batzuk, idatzi denak orri batean eta eskegi horman.



### TALDEA

Berriz irakurri ozen 39.etik 41.era bitarteko orrialdeak, eta hitz egin barkamena eskatzen jakiteak duen garrantziaz. Elkarrizketa hasteko, galdera hauek egin ditzakezu: *Huts egiten duzue-nean, asko kostatzen zaizue barkamena eskatzea? Zergatik? Nola sentitzen zarete barkamena eskatu aurretik eta ondoren? Nola sentitzen zarete barkamena zuei eskatu behar dizutenean?* etab.



### TALDEA

Animatu ikasleak detektibeetara jolastera eta misterio bat argitzera.

1. Banatu ausaz zenbait rol ikasleen artean (detektibeak, erruduna eta gaizkideak). Azaldu arauak eta gogorazi isilik egon behar dutela besteei laguntzarik ez emateko.
2. Eskatu detektibeek begiak ixteko eta ez irekitzeko. Bien bitartean, errudunak marrazki bat egingo du arbelean eta izen faltsu batekin sinatuko du.
3. Gero, detektibeak, begiak ireki, eta errudunaren bila hasiko dira, zenbait estrategia baliatuz: eskuetan klarion-hautsa duen ikaskidea aurkitzea, etab.



## IDAZKETA-TAILERRA

Eskatu ikasleei istorioaren beste amaiera bat idazteko, baina, orainoan, txirrina ez du Rasik joko. Gogorazi ikasleei, erruduna aurkitzeaz gain, nola aurkitu duten eta zergatik egiten zuen hori azaldu behar dutela.